


Getxo Antzokia

ABRARA ZABALDUTAKO LEIHOA, EMOZIOEN AGERTOKIA... GURE INGURUKO ARGI KULTURALA



Luis M^a Uriarte. Getxo Antzokiaren arkitektoa eta EHEOren 2010ko Saria

"Espazio publiko handiagoa ahalbidetzen duen hiri-egitura batean izandako integrazioa nabarmenduko nuke proiektuaz"

Getxo Antzokia berriko diseinuaren arduradun Luis Maria Uriarte arkitektoa, bereziki gustura azaltzen da Euskal Herriko Elkargo Ofizialaren 2010 Arkitektura Sari ospetsuetan saria jaso baitu Galdakaoko "Gandasegi Hezkuntza Zentroan" egindako lanagatik. Duela urte eta erdi sartu zen Getxoko kultur zentroaren proiektu berria; ordurako ibilbide profesional mamitsua zuen eta hainbat sari nahiz aitorten jaso zituen, batez ere espazio publikoetako diseinatzaile moduan.

Hainbeste aitorten jaso izan arren, beste sari bat jasotzek indarberritu eta aurrera egiteko animoak emango dizkizu, ezta?

Batez ere arlo pertsonalean, paradajokoki, lan-arloan zenbait sustatzaileek nolabaiteko exigentzia eta konpromisoa eskatzen duten arkitekturatik ihes egiten baitute.

Epaimahaiak aintzat hartu du zure proiektuak "ikastetxearen erabilera espazio irekiak mantentzea-ekin osagarri egiten duelako, dagoen hiri-egitura konplexuari argitasunez eta sentsibilitate handiz antolatuz". Getxo Antzokiaren neurria egindako helburua, ezta?

Egiaz esku-hartze bakoitzean asmo bertsuak sortzen dira, hartzeko egituraren proiektatutako objektuaren kokapen naturala eta zuzena. Derrigorrean haien arteko elkar konplizitatea sortu behar da. Horixe da edozein proposamenaren nahitaezko alderdia eta, bereziki, Getxo Antzokiaren kasuan.

Nola uztar daiteke ingurunearen berezitasuna kultur zentro baten beharrek Getxoren dimentsioetako udalerriri baterako?

Ez da inolaz ere bat-batean egindako zerbait; antzeko jarduerak egin izan dira nazioarteko antzinako hiri-komplexutan beren jatorrizko balioak kaltetu gabe, hiriko egituraren leheneratzeko faktore erabakigarria sortuz gainera. Beraz, kaltetutako ingurunearen berezitasuna berriz marraztu behar da,



IKUSKAPENA. Luis Maria Uriartek planoak dakusa obran bertan.

egun hurbilagoak edo funtsezkoak iruditzen zaizkigun aurreko elementuak sartu ziren trebetasun eta sentsibilitate berarekin gutxienez. Maila bereko merezimendua izatea da Getxoko Antzokia berriaren gehieneko helburua.

Hasierako proposamenetik egungora, proiektua berriz zehaztu da ikerketaren ondoriozko emaitza konplexuen aldatetekin. Inoiz egin al diozu aurre antzeko egoera bati?

Pentsa dezakeguna baino ohikoagoa da proiektuak atzeratzea gizarteko eta hiriko egiturarekin akordioa izateko joerara eramaten duten irizpenen arabera. Garrantzi horretako esku-hartzeak sortzen dituen ez ulertzea arintzearen prozesu bizi eta luze baten ostean (formatu bolumetrikoa aldatu da,

estutu haren inguratzaileak, urrundu haren mugak, nahastu haren egiturak eta instalazioak), herritar askok galdetuko dute ez den jada zentzuzkoa aztertzea udalerraren gainerako proiektuaren hartzaileak ere badiren besteak ere – obretatik gertu dauden egoiliarren bidezko asmoez gain-.

Gehien eztabaidatu den gaietako bat musika-eskola gainerakoei eranstea izan da. Objektiboki, bolumen hori kentzeak eraikinaren ezartzea hobetuko lukeela uste duzu?

Getxo Antzokiaren jarduerara nagusira programa osagarriak sartzea benetan desiratzen den zerbait da: balibideen ekonomia zehatza sustatzen duten sinergiak eta partekatutako zeharkako erabilerak kontzentratzen dira (erabilera antzeko

aretoak, antzerkia, zinema, dantza, arte-instalazioak, erabilera askoko kutxa eszenikoak, zenbait zerbitzu, aldagelak...). Bestalde, musika-eskola "zintzilikatua edo flotagarria" ezartzeak eta haren ertz estuagoak eta atseginoak bolumen inguratzaileekin eta pasatzeko bideak hurbil, teiltatua emandako espazio publiko bat prestatzen da eta haren zerbitzuek antzinako antzokiak zuen kokapena gaintzen dute.

Zure ustez, proiektu honetako zer xehetasun eta elementu dira aipagarrienak?

Beharbada, espazio publiko gehiago lagatzea (aurrekariaren gainetik dagoen oinezkoentzako erabilera 600 m²) uzten duen hiri-sare zorrotzean eta berezian duen integrazio arina. Nahiago nuke garapen-prozesu zail honetan zehar bere garaian baloratu ahal izango bagenu talde guztiaren hiriko kalitate-maila igoko duen formalizazio bolumetrikoko egoki bat.

ORAINGO LANAK

• Indusketa

Gaur egun indusketa da lanen oinarria. Lanak erritmo bizkorrean jarraitzen dute eta apirillean San Nikolas plazan egin dira batez ere eta antzinako antzokiaren atzealdean. Sakontasun-maila berdindu da jada pasabidearen bi aldeetan eta iritsitako maila harena baino txikiagoa da; hala, hori obraren gaineko "zubi" bihurtuko da. Maila handienera iristen denean, kamioiak haren azpitik zirkulatuko dutela aurreikusita dago.

• Ainguralekuak

Ainguralekuak egiten segitzen dute. Martxoan egiten hasi zirenetik, egin beharreko guztien % 45a egin da. Ainguralekuen obrak bizkor egiten ari dira. Maiatzean zehar maila sakonagoetara iritsiko den indusketa-prozesuarekin jarraituko da.

Espazio balioaniztunek eta abangoardistek era askotariko erabileren programa bat ekarriko dute

2013an Getxok izango duen arteetarako espazio berriak eraikin berritzaile eta degarriena izango du. Espazio balioaniztasuneko 7.000 metro koadroko multzo arkitektoniko funtzional bat, alboko bi bolumenek osatua, oraintsu osoko bilkuran gehiengo batez onartutako Oinarrizko Proiektuan zehazten denez. Egikaritzaren Proiektuaren aurrekoa, gehienez 22,5 metro luze izango den bolumen nagusiaren eraikin bati buruzko zehaztasunak adierazten ditu, aurreproiektua baino bi gutxiago. Perpendikulari, musika-eskola Etxeandia Gozaina kalearen alboan izango da, eta haren korridoreak aurreko mugak errespetatuko ditu. Haren altuerak, berri zehaztuta eta gutxituta, ingurunean orubearen eragina hobetuko duen beheko profila aurkeztuko du plaza aldera. Izertutako beiraren kanpoalde batek, barneko jardueraren ikuspegi arduratsua ekarriko du eta, hala, barneko argitasunak eta argiztapenak berak bere inguruko esparrua "argituko" du.

Barneko espazioak

Bi bolumenek espazio arkitektonikoan sartzeak antzinako antzokiaren gaineko zerbitzuak nabarmen hobetzea dakar. Horrenbestez, espazioen balioaniztasunari esker, egungo ekitaldiekin batera, arteko eta aisialdiko programazio berria, edo enpresa-jarduerak hartuko dira: hitzaldiak, mintegiak, kongresuak...

Bolumen nagusiaren barnean, sarbide funtzionalei kutxa eszenikoak eta Entzunareto Nagusia erantsiko zaizkie. 750 lagunentzako lekua dute eta ekipamendu modernoak dituzte. Foyer-a Abrara orientatutako leiho panoramiko batekin amaituko da.

Musika-eskolan, lehen eta bigarren solairuetan irakaskuntzako eta administrazio-bulegoko instalazioak egongo dira. Lehen mailan, plazari irekitako Entsegu Aretoa, bere aurrealde gardenari esker, kanpotik entzun ahal izango da. Beheko solairuko zati baten hustuketan arkupeak izango dira eta bertan solairura bertarako sarbidea eta entzunareto nagusiko sarrerak eta erdisotoa izango dira. Estalkiaren azpian, sarbide independentea duen erabilera askotarako solairu bat.

Bi eraikinen lurpea partekatua izango da eta kultur espazioen eskaintza osatuko du; entzunareto-gelak, hitzaldi-aretoak eta erabilera askotarako aretoak izango ditu. Erdisotoak intsonorizazioaren erabilera zorrotzak dituzten gelak hartuko ditu (perkusiozko gela, entsegu-kabina...). Horrekin batera, musika-eskolako entzunaretoa, hitzaldi-areto bat eta entzunareto alternatibo bat egongo dira.

Plazaren azpian aparkalekua eta gune guztiko laguntza teknikoaren solairua daude. Azpiegitura berria eraikitzeak hiriko ingurunea asko hobetuko du, espazio zabalago batekin eta maldarik gabekoa.



Zehatz-mehatz

Musika-eskolako Entzunareto Alternatiboa hartu behar duen ekitaldiak (antzerkia, erakusketa...) eskatzen duen "neurria egindako" beharren arabera prestatu behar da, zinema-aretorako, hitzaldietarako edo musika-entzunaretorako izango duen ohiko erabilera gain. Hori egin ahal izango da, bere instalazio teknikoak (argiztapena, soinua...) bere teiltatuean izango direlako, behar denean, sarbidearen aurrealde osoa libratzeko asmoz; era horretan harmailaren zati bat soilik jaso edo zabaldu ahal izango da.

Ba al zenekien...

... Getxo Antzokia berri eta musika-eskola fasetan egitea erabaki da, arkitektoak proiektua hobetzeko lanean jarrai dezan. Baita egikaritzena bertan denbora irabazteko, azken fasearen onarpenaren zain egon gabe aurreratzen joateko. Jarduteko era horri esker, jasotako iradokizunen arretan aldaketak egin ahal izan dira, eta proiektu bizi bati buruz eta garatzen ari den proiektu bati buruz hitz egin ahal izatea.

... plaza zabaldu egingo da Basagoiti etorbidearen egungo zatia hartzean Elizaren eta San Nikolas plazaren artean, eta bi espazio horiek maila berean lotuta geratuko dira, eta horrek, gainera, irisgarritasun-baldintzak hobetuko dituela?



• Informazio-telefonoa: 94 466 01 05

• Posta elektronikoa: iradokizun@getxo.net